

## Qualcomm-en software eta aplikazioei buruzko informazio gehiago

Qualcomm Incorporated enpresaren filialek hainbat software, aplikazio eta zerbitzu eskaintzen dituzte gailu mugikorren errendimendua hobetzeko, bateria aurrezten laguntzeko eta gailuaren segurtasuna hobetzeko. Hona hemen software-aplikazio horietako batzuk:

### Qualcomm Location

Qualcomm Location (lehen "IZat" gisa ezagutzen zena) Qualcomm Technologies, Inc. enpresak (AEBetan), QT Technologies Ireland Limited enpresak (Europako Ekonomia Erkidegoko herrialdeetan) eta Qualcomm CDMA Technologies (Korea) YH enpresak (Koreako Errepublika edo Hego Korean) eskaintako teknologia da. Qualcomm Location teknologiari esker zure gailuak haren kokapena arinago eta zehaztasun handiagoz aurki dezake (zure gailuak GPS seinale indartsu bat lortu ezin badu ere). Gainera, Qualcomm Location teknologiak zure gailuak bateria aurreztu dezan laguntzen du kokapen-datuak behar dituzten aplikazio edo zerbitzuak erabiltzen dituzunean. Kokapen-aplikazioak erabiltzen badituzu, zure gailuak haren kokapena bidali diezaieke zerbitzu-hornitzaileei. Zerbitzu-hornitzaileei emandako kokapenari buruzko informazioa haien baldintza eta pribatutasun politikek gobernatuko dute. Gomendatzen dizugu zerbitzu-hornitzaile horien baldintza eta pribatutasun politiketara jotzea.

Aldizka, Qualcomm Location-ek gertu dauden dorre-zelularrei eta WiFi sARBIDE-puntuei buruzko datuak deskargatzen ditu zure gailuan. Datu hauek zure gailuko sentsoreei buruzko datuekin konbinatu daitezke, hala nola giroskopio edo azelerometroarekin, gailuaren kokapena zehazten laguntzeko eta bateria aurrezteko.

Aldian behin, Qualcomm Location teknologiak ondorengo datuak bidaltzen dizkigu: software ID eskusiboa, zure gailuaren kokapena (latituea, longituea eta altituea, eta haien ziurgabetasuna), gertu dauden dorre-zelularrak eta WiFi puntuak, seinalearen indarra eta ordua (kolektiboki, "Kokapen-Datuak"). Interneteko edozein konexiorekin gertatzen den bezala, zure gailuak erabiltzen duen IP helbidea ere jasotzen dugu. Kokapen-Datuak, software IDak, IP helbideak eta biltzen ditugun bestelako datuak gure sistemen errendimendua babesten, ebaluatzen eta hobetzen laguntzeko erabiltzen ditugu.

Qualcomm Location teknologiak zentzuzko eta aproposak diren hainbat segurtasun-neurri erabiltzen ditu, biltzen ditugun datuak babeste aldera. Bestalde, ez ditugu betirako gordetzen zure softwarearen IDa edo IP helbidea barne hartzen dituzten Kokapen-Datuak eta ez gara saiatzen ere Qualcomm Location-en erabiltzaileak identifikatzen. Sistemen errendimendua handitzeko, zure softwarearen IDa eta IP helbidea zure Kokapen-Datuetara lotuta egongo dira, datu horiek lortzen ditugunetik ondorengo hogeita hamar egunetan zehar. Denbora hori igarota, betirako ezabatuko dira. IP helbideak eta softwarearen IDak deuseztatu ondoren, Kokapen-Datu guztiak batzen ditugu datu-base anonimo bat sortzeko, non dorre-zelularren eta WiFi sARBIDE-puntuen kokapenak adierazten ditugun.

Koreako Errepublikan bazaude, Qualcomm Location zerbitzuak Kokapen-Informazioaren Babeserako Legea betetzen du eta Lege horrek barne hartzen dituen eskubideetaz balia zaitzake. Korean burututako jardueri buruzko galdera edo iruzkinik egin nahi izanez gero, jarri gurekin harremanetan hemen:

Qualcomm CDMA Technologies (Korea) YH  
Attention Legal Department  
4th, 15th, 16th & 17th Fl.  
119, Nonhyeon-dong, Gangnam-gu  
Seul (Seoul), 135-820  
Koreako Errepublika (Republic of Korea)  
Telefono zenbakia: 82-2-3404-1114

### **Qualcomm Technology Reporting (QTR): diagnosi eta estatistikak**

QTR Qualcomm Technologies, Inc. enpresak (AEBetan) eta QT Technologies Ireland Limited enpresak (Europako Ekonomia Erkidegoan) eskainitako teknologia da. QTR teknologiak honako datuak bil ditzake: (i) gailuan instalatutako edota abian dauden aplikazioen izenak, (ii) konfigurazioari buruzko informazioa (hala nola, marka, modeloa, sistema eragilea eta bertsioa, firmwarea eta bertsioak, haririk gabeko eramailea, mugikorraren herrialde-kodea eta sare-kodea eta txipsetaren serie-zenbakia (zu identifikatzen ez zaituena)), (iii) gailuaren errendimendu- eta segurtasun-estatistikak (adibidez, PUZa, GPUa edo modemaren errendimendua) eta (iv) zu identifikatuko ez zaituen baina telefonoaren mugimendua, norabidea eta ingurunearen baldintzak neurtuko dituen sentsoarearen datuak. Datuak zifratutako WiFi bidez kargatzen dira edo, kopuru mugatuetan, zure sare zelularren bidez.

Politika honetan azaldutako xedeetarako erabiltzen ditugu QTR teknologiak bildutako datuak: hurrengo belaunaldiko mugikorren teknologiak garatzen laguntzeko, haririk gabeko errendimendua hobetzeko, bateria aurrezteko, segurtasun-neurriak garatzeko eta gure negozio-eragiketak hobetzeko, besteak beste. Halaber, QTR datuak haririk gabeko eramaileekin edo gailuen fabrikatzaileekin parteka ditzakegu, haien haririk gabeko gailuak, sareak eta segurtasuna hobetzen laguntzeko.

QTR teknologiak biltzen dituen datuak aukera ditzakezu Android gailuko ezarpenen menuko “Qualcomm Technologies Reporting” atalean. Datuak alde batera uzteak ez du inolako eragin negatiborik izango zure gailuaren errendimenduan.

Ohar batzuk: Interneteko edozein konexiorekin gertatzen den bezala, gailuak erabiltzen duen IP helbidea jasoko dugu, baina jaso bezain laster ezabatuko dugu. QTR teknologiak pribatutasun politika honetan identifikaturik ez dagoen edozein datu pertsonal bidaltzen badigu, jaso bezain laster ezabatuko dugu. QTR teknologiaren bertsio batzuk gailuaren “ekipo mugikorraren nazioarteko identitatea” (IMEI delakoa) biltzeko gaitasuna ere dute, baina momentu honetan ez da erabiltzen. Etorkizunean IMEIa biltzen badugu, beharrezkoak diren

xedeetarako izango da eta jakinarazi egingo da, datu pertsonalak babesteko legeak eta pribatutasun-legeak jarraiki. Azkenik, QTR teknologiaren hainbat bertsioak gailuaren kokapenari buruzko datuak guri bidaltzeko aukera ematen dizute. Zure kokapenari buruzko datuak bidaltzea aukeratzen baduzu, aldizka zure gailuaren kokapenari buruzko informazioa bilduko dugu, adibidez haririk gabeko seinale ahula duten eremuak topatzen laguntzeko.

### **Snapdragon Smart Protect**

Qualcomm® Snapdragon™ Smart Protect (aurrerantzean, Smart Protect) Android gailuetan erabil daitekeen segurtasun software bat da. Europako Ekonomia Erkidegoan QT Technologies Ireland Limited enpresak eskaintzen du zerbitzu hau, eta AEBetan Qualcomm Technologies, Inc. enpresak. Smart Protect softwareak instalatuta dagoen gailuko Android aplikazioen funtzionamendua kontrolatzen du eta ikasketa automatikoa erabiltzen du malware, spyware, adware eta ransomware potentzialen portaerak identifikatzeko. Smart Protect-ek portaera horien berri ematen die bezeroaren gailu berean instalatutako hirugarrenen segurtasun-aplikazioei.

Smart Protect softwarea eta Pribatutasun Politika honetan deskribatzen ditugun gainerako erabilerak hobetzen laguntzeko, Smart Protect-ek detektatutako malware potentzialen laburpen bat bidaltzen digu, non ondorengo datuak agertzen diren: aplikazioaren izena, alerta abiarazi duen jarduera, gailuaren oinarritzko informazioa (hala nola marka, modeloa eta sistema eragilearen bertsioa) eta gailuaren konfigurazioari buruzko informazioa (hizkuntzaren ezarpenak, eramailea eta herrialde-kodea, esaterako).

### **Vellamo**

Vellamo Android gailuetarako benchmarking software aplikazio bat da, Qualcomm Innovation Center, Inc. enpresak eskaintzen duena. Vellamo softwareak instalatuta dagoen gailuko sistemaren errendimendua aztertzen du eta horren berri ematen du. Gainera, zure gailuaren errendimendua guk jada aztertutako beste gailu batzuekin konpara dezakezu. Hori eginez, zure gailuak azterketaren emaitzak eta sistemari buruzko informazioa bidali ahal digu. Sistemari buruzko informazio horrek honako hauek har ditzake barne: gailuaren fabrikatzailearen izena, modeloa eta bertsioa; zure gailuko hardwareari buruzko informazioa (prozesadorea, memoria eta erabilgarri dauden sentsoreak, besteak beste); sistema eragile mota eta bertsioa; bistaratze-informazioa; Interneteko protokolo-helbidea; nabigatzailearen erabiltzaile-agentea, eta gailua konektatzen den sare zelularriari buruzko informazioa. Biltzen ditugun datuak Politika honetan deskribatzen diren xedeetarako erabiltzen ditugu, eskatutako benchmarking zerbitzuko errendimendua hornitzea barne hartuta, eta baita “mundu errealeko” gailu mugikorren errendimenduari buruzko estatistikak biltzeko ere.

### **XTRA: iragarritako GNSS satellite bidezko orbitaren datuak**

XTRA gailu mugikorren errendimendua hobetzeko erabiltzen den teknologia bat da, Qualcomm Technologies, Inc. enpresak (AEBetan) eta QT Technologies Ireland Limited enpresak (Europako

Ekonomia Erkidegoan) eskainita. XTRA teknologiak satelite bidezko nabigazio-sistema globaleko (GNSS) sateliteen iragarritako orbitak dituen datu-artxibo bat deskargatzen du Qualcomm enpresatik. XTRAREN datu-artxiboa erabiliz gero, gailuak kokapena kalkulatzeko behar duen denbora murrizten da eta, ondorioz, denbora eta bateria aurrezten dira kokapenean oinarritutako aplikazioak erabiltzean. XTRA softwarearen bertsio berriagoek datu kopuru txikiak ere kargatzen dizkigute. Politika honetan deskribatutako xedeetarako erabiltzen ditugu kargatutako datuak, hala nola zerbitzuaren kalitatea, segurtasuna eta zuzentasuna mantendu eta hobetzeko. XTRA teknologiak ondorengo datu-motak kargatzen ditu: zoriz sortutako ID eskusiboa, txipsetaren izena eta serie-zenbakia, XTRA softwarearen bertsioa, mugikorraren herrialde-kodea eta sare-kodea (herrialdea eta haririk gabeko operadorea zein diren agerian utziz), sistema-eragile mota eta bertsioa, gailuaren marka eta modeloa, prozesadore eta modemaren azken hasieraketa egin zenetik igarotako denbora eta gailuan dauden gure softwareen zerrenda.